

“NIK GERNIKAN BONOA” KANPAINA ARAUTZEN DUTEN OINARRIAK

1. HELBURUA. “NIK GERNIKAN BONOA” Gernika-Lumoko Udalak, Gernikako Merkataria, Ostalari eta Zerbitzu Enpresen Elkartearekin elkarlanean, martxan jarritako dinamizazio ekimena da, herriko enpresa txiki eta ertainetan kontsumoa suspertzeko.

2. BONOAREN EZAUGARRIAK:

2.1. BONO MOTAK.

Lau bono mota egongo dira:

- **NIK GERNIKAN BONOA, MERKATARITZA-Bonoa:** 20 euro 30 euroko erosketak egiteko.
- **NIK GERNIKAN BONOA, PINTXO-Bonoa:** 10 euroren truke, 10 bonoko taloitegia, 15 euroko balioa duten pintxoak edo pastelak erosteko.
- **NIK GERNIKAN BONOA, GOURMET-Bonoa:** 3 euro ogitarteko, hamburgesa, pizza edo anoa kontsumitzeko, 5 euroren truke.
- **NIK GERNIKAN BONOA, MENU-Bonoa:** 7 euroren truke eguneko menua edo kartakoa ordaintzeko, 10 euro.

2.2. BONOA ESKURATZEA.

Bonoak **Gernika-Lumoko Turismo Bulegoan** eskuratu ahal izango dira 2020ko ekainaren 1etik abuztuaren 14 arte (biak barne). Pertsona bakoitzak mota bakoitzeko 2 bono erosi ahal izango ditu gehienez, NANA aurkeztu ondoren.

Bonoak erosi ondoren, ez da onartuko horien zenbatekoa aldatzea edo itzultzea.

2.3. BONOEN ERABILERA.

NIK GERNIKAN BONOA, MERKATARITZA-Bonoak dendetan eta zerbitzu pertsonalen enpresetan erabili ahal izango dira.

NIK GERNIKAN BONOA, PINTXO-Bonoa, GOURMET-Bonoa eta **MENU-Bonoak** taberna, jatetxe eta kafetegietan erabili ahal izango dira.

Bonoak ezingo dira erosketa-tiket berean metatu, Pintxo-bonoak eta Gourmet-bonoak izan ezik; bi kasu horietan, faktura sinplifikatu berean bono bat baino gehiago sartu ahal izango dira, eta bi bono-mota horiek tiket berean sartu ahal izango dira.

Parte hartzen duten enpresei ezingo zaie dirua eskudirutan itzultzeko eskatu; horrek esan nahi du erosketaren zenbatekoa bonoaren trukearen zenbatekoaren berdina izan beharko dela gutxienez (30, 1.5, 5 edo 10 euro, hurrenez hurren).

2.4. BONOAK TRUKATZEKO EPEA.

Bonoak 2020ko ekainaren 1etik abuztuaren 29ra (biak barne) bitartean erabili ahalko dira, atxikitako dendetan (erakusleihoan kanpainako kartela izango dute eta zerrenda www.gernika-lumo.net eta www.gernikamarket.com webguneetan egongo da eskuragarri). Hala ere, erakunde antolatzaileak epe hori luzatu ahal izango du, beharriaren arabera.

3. SALTOKIEK PARTE HARTZEKO BALDINTZAK.

Saltokia Gernika-Lumon daukaten pertsona fisiko edo juridikoak; betiere, 10 langile edo gutxiago baldin badituzte (autonomoak eta inoren konturako langileak zenbatuta) eta bere jarduera nagusia ondorengoak izatea:

- Elikagaien edarien eta tabakoaren txikizkariko merkataritza saltoki iraunkorrean.
- Produktu industrialen txikizkaritxako merkataritza saltoki iraunkorrean.
- Merkataritza mistoa edo integratua.
- Arropa garbitegi, tindategia, eta antzeko zerbitzuak.
- Emakume eta gizonezkoen ileapaindegiak.
- Edertze eta estetika zentroak eta antzekoak.
- Parafarmazia eta farmaziak (medikamentuak izan ezik).
- Argazkilaritza, papergintza edo inpresio zerbitzuak.
- Bidai agentziak.
- Tabernak, kafetegiak eta jatetxeak.

4. KANPAINARA ATXIKITZEA.

Kanpainari atxikitzeke epea 2020ko ekainaren 1etik abuztuaren 1era izango da (biak barne). Izena emateko, enpresek www.gernika-lumo.net edo www.gernikamarket.com helbideetan eskuragarri dagoen atxikimendu-dokumentua bete beharko dute, eta gernikakoelkartea@gmail.com helbide elektronikora bidali, honako dokumentazio honekin batera:

- Aurreko hileko autonomoen kuotaren ordainagiriaren kopia, halakorik ezean, autonomoen altaren kopia.
- EJZn alta eman izanaren ziurtagiriaren kopia.
- Banku-kontuaren titulartasunaren egiaztagiria (libretaren kopia, erakundearen ziurtagiria,..).

5. ENPRESEK BONOAK ENTREGATZEA.

Trukatutako bonoen ordainketa jasotzeko, enpresa parte-hartzaileek jakinarazten zaizkien ekaineko, uztaileko eta iraileko egunetan:

- Salmentako faktura sinplifikatu ofizial bakoitzaren kopia.
- Aplikatutako bono originala.
- Bonoak entregatzeko fitxa.

Dokumentazio hau guztia Gernikako Merkataria, Ostalari eta Zerbitzu Enpresen Elkartearen entregatuko da (Merkatu plaza, 17. postua).

6. SALTOKIEI BONOEN ORDAINKETA.

Behin entregatutako bonoen berrikusketara eta balidazioa eginda, bonoak entregatzeko epea bukatu eta 45 eguneko gehienengo epean bonoen ordainketa egingo da, eskari orrian zehaztutako kontu-korronte zenbakian.

7 ATXIKITAKO SALTOKIEN BETEBEHARRAK.

Kanpainara atxikitako saltokiek ondorengo betebeharrak bete beharko dituzte:

- Bono bakoitzeko faktura sinplifikatu ofizial bat jaulkitzea, erabilitako bonoaren truke-balioaren balio bera edo handiagoa duena.
- Oinarri hauetan zehaztutako epeak betetzea.
- Erakusleihoan edo atean (edo ikusteko moduko tokian) kanpainako ikurrak jartzea.
- Kontsumitzaileei kanpainaren ezaugarrien berri ematea.
- Erakunde antolatzaileari eskatutako informazio eta agiri guztiak ematea, kanpainako baldintzak behar bezala ezartzen diren egiaztatzeko.

8. EZ BETETZEAK.

Oinarri hauetan zehaztutako epeak eta baldintzak betetzen ez badira, sortutako edozein ordainketa eskubide galduko da.

9. IZAERA PERTSONALEKO DATUEN BABESA.

Kanpaina honen bitartez bildutako datuak Gernikako Merkatari, Ostalari eta Zerbitzu Enpresen Elkartearen titularitateko fitxategietan gordeko dira, kanpaina honetako baldintzetan ezarritakoa egiteko edo etorkizunean enpresa edo formazio kanpainetako informazioa bidaltzeko. Kanpainan atxikitako enpresek datuak eskuratu, zuzendu, ezereztu eta aurka egiteko eskubideak erabili ahal izateko elkartean egin ahal izango dute. Datuak Babesteko 19/1999 Lege Organikoko 5. Artikuluan xedatutakoaren arabera.

Gernika-Lumon, 2020ko maiatzaren 30ean